



LURRAREN ALDERDI GORDEA

MENDI batek ikuspuntu ugariak ditu. Honela esanik, ageriko gauza ematen du. Egia dela konprobatzeko aski dugu Pyrenaicaren hemeroteke eskergari begiratu bat ematea. Lurraren azalean harrotzen diren zimur horiek liluratu egiten gaituzte eta isuralde desberdinak xerkatzen ditugu haien baitan. Eta isuraldeez aritzen garenean, adiera figuratua –zientziatik, kiroletik, nahiz edozein inspirazio klasetatik geure hurbiltze pertsonala bilaturik– edo adiera fisiko hutsetik ari gara, hau da, zein ote da gailurra konkistatzeko maldarik ederrrena? Baina beti, edo ia beti, kanpoaldeko errealtatea dugu buruan, lur azala den dimentsio ikusgarria. Eta barnealdeko "isuraldeak"? Mendia ez baita kanpoaldetik bakarrik existitzen. Barnealdea beste mundu bat da, Lurraren alderdi gordea alegia. Antzina beldurgarria eta ia beti ahantzia, lurrazpiko mundua zirraragarria izatera hel daiteke. Kanpoko Naturaren edozein erakusgarriekin alderatuta, hain alde handia dago, non harriturik utziko gaituen behin eta berriz, iluntasunean barrena irabazten dugun metro bakoitzean aurrera goazela. Gainera, esploraziorako eta aurkikuntzarako eremu bat eskaintzen segitzen du gaur egun, eta hau asko esatea da, gaizki trataturiko gure Planeta zaharrean bizi ditugun garaiotan.

Zenbait arrazoik eraman gaitu 2009ko ale monografiko hau lurrazpiko mendiari eskaintzera. Alde batetik, kirola eta zientziaren artean dagoen jarduera hau agerira ekartzea, espeleologia, eszenatoki isila, nola ez, mendiaren erraietan duena. Gure boten azpian, sarritan metro apur batzuk beherago, zalbaltzen den

ezohiko mundu mineralaz ez gara jakitun. Azken mendeetan neurri mitikoetatik giza eskala zientifikora iragan diren amildegiak. Bestetik, ingurumen horren oreka ekologiko ahula azpimarratu nahi dugu, babes eta errespeturik handiena merezi baitu. Halaber, espeleologiak bere zentzurik zabalenean hartzen dituen diziplina ugariak aurkeztu nahi ditugu, hala nola Geologia, Arkeologia, Paleontologia, Biologia edo kirol erronka ikaragarria, izugarri aurkako izan daitekeen mundu batean. Esan behar da, gainera, gailur edo mendigune guztietan ez dela lurrazpiko errealtate hau gertatzen. Guretzat hain normala den harpeingintza ez da ezagutzen munduko beste eskualde batzuetan. Kantauriar mendilerro, Pirinio eta Picos de Europa aldeko haitzuloen aberastasuna salbuespena da, ez da batere ohikoa. Mundu osoko espeleologoak etortzen dira haietara. Horregatik ez gara harritu behar fenomeno geologiko berdingabeak ematen badira. Haietako bat dugu esplorazioaren 50. urteurrena betetzen duen Torca del Carlista izeneko leizea, ale hau sakonuneei eskaintzeko bultzatzaile izan dena, baita haren hein osoa bistaritzen duten lehenbiziko argazkiak aurkezteko aitzakiarik onena ere.

Eskertu behar dut, nola ez, artikulugile sorta ezohikoaren parte hartzea. Argi baieztatu daiteke sekula ez dela bildu mendi argitalpen batean, hain maila altuko lurrazpiko munduaren esploratzaile eta zientziagizon talderik. Haietako asko espeleologiaren historia bizia dira eta modu zeharo desinteresatuan lagundu dute. Bereziki, Txus Lopez de Ipiñari, esku artean duzun alea osatzeko ahalegina nirekin batera eraman duelako.

LA CARA OCULTA DE LA TIERRA

UNA montaña tiene muchos puntos de vista. Dicho así, parece una obviedad. Basta echar una ojeada a la extensa hemeroteca de Pyrencia para comprobarlo. Nos apasionan esas arrugas que surgen en la piel de la Tierra y buscamos en ellas múltiples vertientes. Y hablamos de vertientes tanto en un sentido figurado, buscando nuestro personal acercamiento desde la ciencia, el deporte, o desde cualquier tipo de inspiración, como en un sentido puramente físico, es decir, ¿qué cara es la más bonita para conquistar la cumbre? Pero siempre, o casi siempre, pensamos en la realidad exterior, en esa dimensión visible que es la superficie. ¿Y las "vertientes" interiores? Porque la montaña no existe sólo por fuera. El interior es otro mundo, es la cara oculta de la Tierra. Antiguamente temido y casi siempre olvidado, el mundo subterráneo llega a ser fascinante. Es tan diferente a cualquier manifestación de la Naturaleza exterior que nos sorprende a cada paso, a cada metro que ganamos a la oscuridad. Además, sigue ofreciéndonos hoy en día un terreno para la exploración y el descubrimiento, y esto ya es mucho decir en los tiempos que corren por nuestro viejo y maltratado Planeta.

Varios motivos nos han llevado a dedicar este número monográfico de 2009 a la montaña subterránea. De un lado, sacar más a la luz una actividad entre el deporte o la ciencia como es la espeleología, que tiene su silencioso escenario, cómo no, dentro de la montaña. No somos conscientes de que bajo nuestras botas, a veces a unos pocos metros hacia abajo, se abre un mundo mineral extraordinario. Abismos que en los últimos siglos

han pasado de la escala mítica a la humana y científica. De otro lado, poner de relieve el delicado equilibrio ecológico de este medio, merecedor de protección y máximo respeto. También queremos presentar las múltiples disciplinas que, en un sentido amplio, abarca la espeleología, como pueden ser la Geología, la Arqueología, la Paleontología, la Biología o el impresionante reto deportivo en un mundo que puede volverse tremendamente hostil. Además, hay que resaltar que no en todas las montañas ni en todos los macizos se da la realidad subterránea. El cavernamiento, que para nosotros es tan familiar, en otras áreas del mundo no existe. La riqueza de las cuevas de la Cordillera Cantábrica, los Pirineos y los Picos de Europa es excepcional, no es la regla general. A ellas acuden espeleólogos de todo el mundo. Por eso no es extraño que se den fenómenos geológicos únicos como la Torca del Carlista. La reciente celebración del 50 aniversario de su exploración ha sido otro de los detonantes para dedicar este número a las profundidades, y la mejor excusa para presentar las primeras fotografías en las que se divisa toda su dimensión.

Me falta agradecer, cómo no, la colaboración de un extraordinario plantel de firmas. Puedo afirmar que nunca se habían reunido en una publicación de montaña exploradores y científicos del mundo subterráneo de tanto nivel, muchos de ellos historia viva de la espeleología, haciéndolo de manera totalmente desinteresada. En especial, a Txus López de Ipiñari, quien ha sobrellevado conmigo el esfuerzo para completar el número que tienes en tus manos.

Josu Granja